AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

5759

1732/2011 EBAZPENA, azaroaren 8koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena. Ebazpen honen bidez onartzen dira mediku kategorian (fakultatibo espezialista medikoen hainbat lanpostu funtzionaletakoak) lotura estatutario finkoa lortzeko hautaketa-prozesua arautuko duten oinarri espezifikoak. Aipatu kategoria fakultatibo mediku eta teknikarien lanbide taldekoa da eta destinoak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko osasun-zerbitzuetako erakundeetan izango dira.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren uztailaren 15eko 1282/2011 Ebazpenaren bidez onartu dira Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan lotura estatutario finkoa lortzeko hautaketa-probak arautuko dituzten oinarri orokorrak.

Hautaketa-prozesu bakoitza gauzatzeko beharrezkoa da kategoria bakoitzeko destinoak arautuko dituzten oinarri espezifikoak argitaratzea.

Horregatik, bat etorriz Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legeak, osasun zerbitzuetako pertsonal estatutarioaren Estatutu Markoaren abenduaren 16ko 55/2003 Legeak, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatuaren apirilaren 12ko 7/2007 Legeak, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoko lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuak eta Osakidetza Ente Publikoko Estatutu Sozialak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuak ezarritakoarekin eta indarrean dauden gainerako xedapen aplikagarrietan ezarritakoarekin,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Oinarri hauen xede diren hautaketa-probak deitzea.

Bigarrena.– Medikuen kategorian (fakultatibo espezialista medikoen hainbat lanpostu funtzionaletakoak) lotura estatutario finkoa lortzeko hautaketa-prozesua arautuko duten oinarri espezifikoak onartzea, I. eranskinean daudenak. Aipatu kategoria fakultatibo mediku eta teknikarien lanbide taldekoa da eta destinoak Osakidetzako-Euskal osasun zerbitzuko osasun-zerbitzuetako erakundeetan izango dira.

Hirugarrena.– Ebazpen honen II. eranskinean eskainitako destinoen zerrenda onartzea.

Laugarrena.– Merituen baremoa onartzea, ebazpen honen III. eranskinean dagoena.

Bosgarrena.– Dagokion gai-zerrenda onartzea, ebazpen honen IV. eranskinean dagoena.

Seigarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa jar dakioke Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari hilabeteko epearen barruan, ebazpena EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, hala ezartzen baitute lege eta dekretu hauek: Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatutakoak; Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legeak eta Osakidetzaren Estatutu Sozialak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuak.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko azaroaren 8a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JULIÁN PÉREZ GIL.

I. ERANSKINA

MEDIKUEN (FAKULTATIBO ESPEZIALISTA MEDIKOEN HAINBAT LANPOSTU FUNTZIONALETAKOAK) KATEGORIAN LOTURA ESTATUTARIO FINKOA LORTZEKO HAUTAKETA-PROZESUA ARAUTUKO DUTEN OINARRI ESPEZIFIKOAK. AIPATU KATEGORIA FAKULTATIBO MEDIKU ETA TEKNIKARIEN LANBIDE TALDEKOA DA ETA DESTINOAK OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO OSASUN-ZERBITZUETAKO ERAKUNDEETAN IZANGO DIRA

1.– Deialdi honetan eskaintzen diren destinoak.

1.1.– Deialdi honen xede izango dira medikuen (fakultatibo espezialista medikoen hainbat lanpostu funtzionaletakoak) kategoriako destinoak, fakultatibo mediku eta teknikarien lanbide taldekoak, eta destinoak II. eranskinean agertzen diren Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko osasun-zerbitzuetako erakundetakoak izango dira. Destino horien kopurua eta ezaugarriak aldatu ahal dira 2011rako deitzen den lekualdatze-lehiaketa erabaki ahala.

1.2.– Deitutako destinoen % 5 pertsonal ezinduak betetzeko gordeko da. Oinarri orokorren arabera eskaini daitezkeen destinoak behin betiko zehazten direnean erabakiko da zenbatekoa den kopuru hori.

2.– Izangaiek bete beharreko baldintzak:

Izangaiek ebazpen honetan arautzen den deialdian parte har dezaten, eskabideak aurkezteko epearen azken egunean, oinarri orokorretan eskatzen diren baldintzez gain, beste hauek ere bete beharko dituzte, oinarri orokorretan jasotzen diren salbuespenak izan ezik, eta, kasua bada destinoa esleitzen dela, destinoaz jabetu arte mantendu behar dituzte:

a) Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak emandako Medikuntza eta Kirurgian lizentziatuaren titulazioa eta lanpostu funtzionala betetzeko eskatzen den modalitateko espezialistaren titulua izatea edo izateko moduan egotea, Osakidetza Ente Publikoaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuaren I. eranskinean zehaztutakoa betez.

b) Edozein kasutan ere, lortu nahi den lanpostuaren baldintzak bete behar dira, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen 186/2005 Dekretuak, uztailaren 19koak, ezarritakoaren arabera eta indarrean dagoen araudiak ezarritako beste edozeinen arabera.

c) Inskripzio-eskubide hauek ordainduta izatea eskabideak aurkezteko epe barruan, eskainitako destinoen titulazio-taldearen arabera:

A1 taldea (antzinako A taldea): 25 euro.

3.– Oposizio lehiaketaren nondik norakoa.

3.1.– Oposizioaldia.

1.– Oposizioaldian ariketa hauek egingo dira:

a) Lehenengo ariketa: Epaimahaiari dagokio probaren edukia eta iraupena zehaztea. Galdetegi bati idatziz erantzun beharko zaio, ematen den gehienezko denboraren barruan, eta galderak IV. eranskinean jasotako gaiei buruzkoak izango dira, espezialitate gai zerrendakoa eta gai zerrenda orokorra dagozkio.

Era berean, aipatu eranskinean bibliografia ere sartuko da proba prestatzeko.

b) bigarren ariketa: epaimahaiak zenbait ariketa praktiko jarriko du. Galdetegiak edo beste tankera batekoak izango dira.

Fakultatibo Espezialista Kardiologia-Kardiologia Hemodinamikako Mediku lanposturen bat lortu ahal izateko, beharrezkoa izango da aipatutako bi proba orokor gainditzea eta, horretaz gain, Fakultatibo Espezialista Kardiologia-Kardiologia Hemodinamikako Medikuen gai-zerrendari buruzko hirugarren proba bat ere bai.

Fakultatibo Espezialista Barne Medikuntza-Paziente Makal eta Gaixondoko Unitateko Mediku lanposturen bat lortzeko, beharrezkoa izango da aipatutako bi proba orokor gainditzea eta, horretaz gain, Fakultatibo Espezialista Barne Medikuntza-Paziente Makal eta Gaixondoko Unitateko Medikuen gai-zerrendari buruzko hirugarren proba bat ere bai.

Ariketak lotuta egongo dira destinoetako funtzio espezifikoekin, eta helburutzat izango dute destino horietan aritu nahi dutenen gaitasunak, trebetasunak, ezagutza eta ahalmen profesionala baloratzea.

3.2.– Oinarri orokorretako 14. atalean aurreikusitako puntuazio-ordenaren araberako izangaien zerrendaren ondoren, I. eranskinean agertzen diren proposatutako izangaiek, 14.2 oinarrian zehaztutako dokumentazioaz gain, beste hauen fotokopia konpultsatua aurkeztu beharko dute:

– Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak emandako Medikuntza eta Kirurgian lizentziatuaren titulazioaren eta eta lanpostu funtzionala betetzeko eskatzen den modalitateko espezialista tituluaren fotokopia konpultsatua edo notarioaren testigantza, Osakidetza Zuzenbide Pribatuko Entitate Publikoaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuaren I. eranskinean zehaztutakoa betez.

3.3.– Lehiaketaldia.

Egiaztatutako merituak III. eranskineko merituen baremoaren arabera balioztatuko dira, oinarri orokorretan ezarritako irizpideen arabera.

3.4.– Lanpostuaz jabetzea.

Oinarri orokorretako 17 atalean aipatutako dokumentazioaz gain, deialdi honen xede diren destinoetarikoren batez jabetzen direnek ondorengo agiria aurkeztu beharko dute jabetzako ekitaldian:

Elkargoko kide izatearen ziurtagiria.

II. ERANSKINA

DESTINOEN ZERRENDA KATEGORIA: MEDIKUA

FAKULTATIBO ESPEZIALISTA MEDIKOEN HAINBAT LANPOSTU FUNTZIONALETAKOAK

Osakidetzako zuzendari nagusiaren uztailaren 15eko 1282/2011 Ebazpenaren bidez onartutako oinarri orokorretako 1. oinarrian aurreikusitakoaren arabera, destino hauek deitzen dira:

F.E. Anestesiologia eta Bizkorketako Medikua: 51 destino.

F.E. Kardiologiako Medikua: 18 destino eta Kardiologia-Hemodinamika, destino 1.

F.E. Aho eta Aurpegi-Masailetako Kirurgiako Medikua: destino 6.

F.E. Pediatria Kirurgiako Medikua: destino 3.

F.E. Endokrinologia eta Nutrizioko Medikua: 4 destino.

F.E. Barne Medikuntzako Medikua: 13 destino eta Barne Medikuntzako Medikua- paziente makal eta gaixondoaren unitatea destino 1.

F.E. Otorrinolaringologiako Medikua: 5 destino.

F.E. Medikuntza Preventivo eta Osasun Publikoko Medikua: 3 destino.

F.E. Urologiako Medikua: 15 destino.

Deitutako destino-kopurua alda liteke, 2011n deituko den lekualdaketa-lehiaketaren ondorioz.

2. oinarrian ezarritakoaren arabera, deialdi honen xede diren osasun-zerbitzu erakundeetako destinoak hautaketa-prozesua gainditu duten izangaien zerrenda argitaratzean zehaztuko dira.

III. ERANSKINA

MEDIKUEN (FAKULTATIBO ESPEZIALISTA MEDIKOEN HAINBAT LANPOSTU FUNTZIONALETAKOAK) KATEGORIAKO MERITUEN BAREMOA. AIPATU KATEGORIA FAKULTATIBO MEDIKU ETA TEKNIKARIEN LANBIDE TALDEKOA DA ETA DESTINOAK OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUKO OSASUN-ZERBITZUETAKO ERAKUNDEETAN IZANGO DIRA

1) Lan-esperientzia (gehienez, 45 puntu).

Eskabideak aurkezteko azken egunera arte izangaiek aitortuta duten zerbitzu-denbora zenbatuko da.

Dagokion espezialitateko etengabeko atentzioko behin-behineko izendapen batean egindako zerbitzuen puntuazioari zerbitzu horiengatik normalean ematen den puntuazioaren % 50 aplikatuko zaio.

Guztizko denbora zenbatzeko orduan, lan egindako egun naturalak hartuko dira kontuan, eta ez dira zenbatuko hilabetera heltzen ez diren gainerako egunak. Hilabetea osatzeko, 30 egun naturaleko multzoa hartuko da.

Titulua irailaren 24ko 1497/1999 Errege Dekretuaren babesean eskuratu dutenen espezialistaren antzinatasunean, abenduaren 23ko 62/2003 Legean, zerga, administrazio eta gizarte neurriei buruzkoan, eta Ordena Sozialari buruzkoan, deialdiak aurrez ikusitako baldintzetan, interesdunak espezialitatearen berezkoa eta espezifikoa den eremuaren baitan gauzatutako lan profesional eraginkor osoa baloratuko da. Jardute horretatik kenduko da, hasierako aldian, Espainian espezialitate horretarako ezarritako prestakuntza aldiaren % 170. Aipatutako deskontua ez zaie egingo espezialista titulua 1497/1999 Errege Dekretuko hirugarren xedapen osagarriak aurrez ikusitakoaren arabera lortu dutenei.

1.– Osakidetzako, Gizarte Segurantzako eta komunitate autonomoetako osasun zerbitzuetako erakundeetan, edozein herri administraziotan, baita Europar Batasuneko beste estatuetako sare publikoko zerbitzu sanitarioetan ere, dagokion kategorian eta espezialitatean edo medikuntza alorreko kudeaketa-postuetan lan egindako hilabete bakoitzeko: 0,30 puntu.

2.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko edota beste edozein herri administraziotako osasun zerbitzuetako erakundeetan beste espezialitate batzuetan zein Europar Batasuneko kide diren gainerako estatuetako sare publikoko osasun zerbitzuetan dagokion espezialitatean kupoko eta zonaldeko mediku gisa eskainitako zerbitzuen hilabete bakoitzeko: 0,15 puntu.

3.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko edota beste edozein herri administraziotako osasun zerbitzuetako erakundeetan edo osasun sistema nazionalari atxikitako ikerketa eta antolakuntzako zentro ofizialetan, zein Europar Batasuneko kide diren gainerako estatuetako sare publikoko osasun zerbitzuetan atentzio espezializatuko beste zerbitzu batzuetan mediku orokor gisa edo beste espezialitate batzuetan mediku gisa edo pertsonal ikertzaile gisa eskainitako zerbitzuen hilabete bakoitzeko: 0,075 puntu.

4.– Erakunde sanitario publikoetan kudeaketa eta zerbitzu orokorren alorrean goi-mailako kudeaketako lanpostuetan egindako hilabete bakoitzeko: 0,07 puntu.

Barne-sustapeneko txandan lehiatzen direnei, honela zenbatuko zaizkie eskainitako aurretiko zerbitzuak:

a) E taldean eskainitako zerbitzuak: 0,02 puntu hilabete bakoitzeko.

b) D taldean eskainitako zerbitzuak: 0,04 puntu hilabete bakoitzeko.

c) C taldean eskainitako zerbitzuak: 0,05 puntu hilabete bakoitzeko.

d) B taldean eskainitako zerbitzuak: 0,06 puntu hilabete bakoitzeko.

e) A taldean eskainitako zerbitzuak: 0,15 puntu hilabete bakoitzeko.

f) Lehiatzen den lanpostu berean egindako zerbitzuak: 0,30 puntu hilabete bakoitzeko.

Zerbitzu eginkizunetan edo goragoko kategoriako funtzioetan eskainitako zerbitzuak benetan betetako lanpostuan zenbatuko dira.

Halaber, zerbitzu berezietako egoeran eskainitako zerbitzuak jatorrizko lanpostuan zenbatuko dira.

2) Prestakuntza, irakaskuntza eta ikerkuntza (gehienez, 35 puntu):

Atal honen barruan ondokoaren arabera egiaztatzen den prestakuntza balioztatuko da:

a) Graduatu aurreko prestakuntza (gehienez, 5 puntu):

Espediente akademikoaren balorazioa honela aterako da ondorengo hipotesien kasuan:

$$\frac{\text{(bikain kopurua x 6) + (Ohorezko matrikula kopurua x 9)}}{\text{Irakasgai guztien kopurua}}$$

Ez dira ebaluatuko eta, horrenbestez, ez dira zatitzailean agertuko ondorengo ikasgaiei dagozkien kalifikazioak edo baliozkotze ofizialaren helburu izan direnak: erlijioa, heziera politikoa, heziketa fisikoa, hizkuntzak, edo Medikuntzako Lizentziaturaren ikasketen oinarrizko edukiarekin lotura nabarmenik ez duten beste ikasgai batzuk.

b) Graduondoko prestakuntza (gehienez, 18 puntu):

- Doktorea: 15 puntu.
- Doktorea cum laude: 18 puntu.
- Gradu ondoko masterra: 7,5 puntu.
- Aditua/Espezialista unibertsitarioa: 5 puntu.
- Ikertzeko nahikotasuna/Diploma ikasketa aurreratuetan: 5 puntu.
- Lizentziatura gradua: 3 puntu.
- Doktoretza-ikastaroa, ikastaro bakoitzeko 0,50 puntu, eta gehienez 10 ikastaro.
- Goi-mailako beste titulazio elkartu bat: 4 puntu.

Ez dira baloratuko doktoradutza-ikastaroak baldin eta balio izan badute Doktore-titulua lortzeko, edo Doktorea cum laude, edo Ikertzeko Nahikotasuna edo Diploma ikasketa aurreratuetan.

c) Prestakuntza espezializatua:

1.– Kategorian sartzeko eskatzen ez den legez aitortutako bestelako espezialitateren bateko tituluren bat edo batzuk dituzten izangaiak, baldin eta aldez aurretik fakultatiboentzako ofizialki onartutako prestakuntza-programako egoiliar gisa bete badute: 2 puntu.

2.– Kategorian sartzeko eskatzen ez den espezialistaren bestelako titulu bat edo titulu batzuk dituzten izangaiak (BAME bidez ez): puntu 1.

d) Etengabeko prestakuntza (gehienez, 20 puntu):

Eskatutako destinoko kategoriarekin zerikusia duten ikastaroetara joateagatik:

- 9 ordura arte: 0,25 puntu.
- 10-19 ordu: 0,75 puntu.
- 20-29 ordu: 1,25 puntu.
- 30-49 ordu: 2 puntu.
- 50-99 ordu: 3 puntu.
- 100-249 ordu: 4 puntu.
- 250-599 ordu: 5 puntu.
- 600 ordu edo gehiago: 6 puntu.

Ikastaroen ziurtagirietan kreditu kopurua bakarrik agertzen denean, puntuazioa 0,30 puntukoa izango da kreditu bakoitzeko, ikastaroko gehienez 20 kreditu onartuko direlarik.

Ikastaroaren gutxieneko ordu-kopurua edo kredituen baliokidetza ordutan adierazten ez duten ziurtagirietan edo bai ordu-kopurua bai prestakuntza ematen duen administrazio publikoak onartutako kredituen baliokidetza ordutan jasotzen dutenetan, epaimahaiak, aurkeztutako ziurtagiriak eta ikastaroaren edukia ikusita, dagokion puntuazioa emango du, eta kasu horretan ez du inolaz ere 0,25 puntu baino gutxiago emango.

Erakunde ofizialek, unibertsitateek, erakunde sanitarioek, eta hala badagokio, elkargo profesionalek eta elkarte zientifikoek emandako eta egiaztatutako ikastaroak baloratuko dira, eta baita edozein administrazio publikok hitzartutako etengabeko prestakuntzako akordioen arabera eman eta egiaztatutako ikastaroak ere, betiere titulazio ofiziala lortzeko ikasketa plan baten barrukoak ez badira.

e) Irakaslanak (gehienez 10 puntu):

– Fakultateko / Unibertsitate Eskolako katedraduna: (urteko) puntu 1.

– Fakultateko / Unibertsitate Eskolako irakasle titularra edo elkartua: (urteko) 0,50 puntu.

– Kreditatutako tutorea egoiliarrentzako irakaskuntzan, kasua bada, dagokion espezialitatean: (urteko) 0,750 puntu

– Irakaskuntza etengabeko prestakuntzako programa ofizialetan: (ordu bakoitzeko) 0,050 puntu.

f) Jarduera zientifikoak eta ezagutza hedatzekoak (gehienez, 15 puntu):

Eskatutako destinoko lanpostu funtzionalarekin zerikusia duten lan zientifikoak, txosten-aurkezpenak, komunikazioak, hitzaldiak edo mahai-inguruak egiteagatik:

– Eskualdeko txosten bakoitzeko: 0,50 puntu.

– Espainiako txosten bakoitzeko: 2 puntu.

– Nazioarteko txosten bakoitzeko: 3 puntu.

– Eskualdeko ahozko komunikazio/poster bakoitzeko: 0,30 puntu.

– Espainiako ahozko komunikazio/poster bakoitzeko: 1,20 puntu.

– Nazioarteko ahozko komunikazio/poster bakoitzeko: 2 puntu.

– Eskualdeko mahai-inguru bakoitzeko: 0,40 puntu.

– Espainiako mahai-inguru bakoitzeko: 1,50 puntu.
– Nazioarteko mahai-inguru bakoitzeko: 2,50 puntu.
– Argitalpen bakoitzeko (lehenengo egilea): 2 puntu.
– Argitalpen bakoitzeko (beste egile batzuk): puntu 1.
– Liburu bakoitzeko (lehenengo egilea): 4 puntu.
– Liburu bakoitzeko (beste egile batzuk): 2 puntu.
– Kapitulu bakoitzeko (lehenengo egilea): 2 puntu.
– Kapitulu bakoitzeko (beste egile batzuk): puntu 1.
– Tesina bakoitzeko: 3 puntu.

Ez da baloratuko atal honetan zehaztu ez den merezimendurik.

g) Lanbide garapena (gehienez, 28 puntu):

Izangaiek hautatu ahalko dute oinarri espezifikoetan aitortutako lanbide garapenaren mailari dagokion puntuazioa esleitzea, d) (etengabeko prestakuntza), e) (Irakaslana) eta f) (Jarduera zientifikoa eta ezagutza hedatzekoa) atalen arabera egokituko litzaiekeenaren ordez:

- IV. Maila: 28 puntu.
- III. Maila: 22 puntu.
- II. Maila: 18 puntu.
- I. Maila: 14 puntu.

Aukera hori 12.5.2 oinarrian dokumentazioa aurkezteko ezarritako 10 egun balioduneko epean gauzatuko da.

h) Hizkuntzak (gehienez, 10 puntu):

- Ingelesa: gehienez 6 puntu.
- Frantsesa: gehienez 6 puntu.
- Alemana: gehienez 6 puntu.

i) Informatikako ezagutzak (gehienez, 2 puntu).

3) Euskara.

- 2HE: 18 puntu.
- 1HE: 9 puntu.

IV. ERANSKINA

I.– FAKULTATIBO MEDIKU LANBIDE TALDEETAKO MEDIKU ESPEZIALISTA GAI ZERRENDA

ESPEZIALITATEA: ANESTESIOLOGIA ETA BIZKORKETAKO

1.– Printzipio farmakologikoak:

1.1.– Farmakologia klinikoaren oinarrizko printzipioak.

1.2.– Nerbio sistema autonomoaren fisiologia eta farmakologia.

1.3.– Inhalazio bidezko anestesikoak.

1.4.– Benabarneko anestesia, opioideoak ez diren agenteekin.

1.5.– Opioideoak.

1.6.– Muskulu lasaigarriak.

1.7.– Kolinesterasaren inhibitzaileak.

1.8.– Anestesiko lokalak.

1.9.– Gas medikoen sistemak.

1.10.– Anestesiaren segurtasuna.

2.– Fisiologia eta anestesia:

2.1.– Fisiologia eta arnas funtzioa anestesia garaian.

2.2.– Bihotzeko fisiologia.

2.3.– Gibeleko fisiologia.

2.4.– Giltzurruneko fisiologia.

2.5.– Garuneko fisiologia.

2.6.– Fisiologia eta farmakologia.

2.7.– Oreka hidroelektrolitikoaren fisiologia eta oinarrizko azidoa.

3.– Oinarrizko praktika anestesikoa:

3.1.– Arrisku anestesikoa.

3.2.– Operazio aurreko ebaluazioa.

3.3.– Gaixotasun interkurrenteetako inplikazio anestesikoak.

3.4.– Operazio aurreko prestaketa.

3.5.– Pazientearen jarrera.

3.6.– Monitorizazioaren oinarrizko printzipioak anestesian.

3.7.– Sakontasun anestesikoaren monitorizazioa.

3.8.– Bihotz-hodietako monitorizazioa.

3.9.– Elektrokardiografia.

3.10.– Arnas monitorizazioa.

3.11.– Giltzurrunaren funtzioaren monitorizazioa.

3.12.– Monitorizazio neurologikoa.

3.13.– Monitorizazio neuromuskularra.

3.14.– Tenperaturaren monitorizazioa.

3.15.– Azido-basea orekatzeko monitorizazioa.

3.16.– Inhalazio bidezko anestesia emateko sistemak.

3.17.– Benabarneko anestesia emateko sistemak.

3.18.– Arnasbidearen kontrola.

3.19.– Anestesia epidurala eta bizkarrezurrekoa.

3.20.– Nerbio-blokeo periferikoak.

3.21.– Anestesiologiari aplikatutako ekografia.

3.22.– Terapeutika likido perioperatorioa.

3.23.– Terapia transfusionala.

3.24.– Toraxeko kirurgiarako anestesia.

3.25.– Bihotzeko kirurgiarako anestesia.

3.26.– Kirurgia baskularrerako anestesia.

3.27.– Anestesia, giltzurrun aparatua eta genitourinarioa.

3.28.– Anestesia eta gibela.

3.29.– Organoen transplantea.

3.30.– Kontrol anestesikoa kirurgia laparoskopikoan.

3.31.– Anestesia obstetrizian.

3.32.– Jaioberrien anestesia.

3.33.– Anestesia pediatrikoa.

3.34.– Kirurgia ortopedikorako anestesia.

3.35.– Anestesia eta sistema endokrinoa.

3.36.– Anestesia oftalmologian.

3.37.– Anestesia belarrien, sudurraren eta eztarriaren Kirurgian.

3.38.– Anestesia eta laser bidez egindako kirurgia.

3.39.– Kirurgia anbulatoriorako anestesia.

3.40.– Anestesia paziente geriatrikoentzat.

3.41.– Anestesia traumatismoetan eta erreduretan.

3.42.– Anestesia operazio-gelatik kanpo.

3.43.– Anestesia eta organoak ematea.

3.44.– Sedazioa.

3.45.– Operazio ondoko suspertzea, operazio ondoko zainketen unitatea.

3.46.– Neurokirurgiarako anestesia.

3.47.– Anestesiaren kalitatearen eta kostuen hobekuntza.

4.– Mina:

4.1.– Operazio ondoko min akutua.

4.2.– Min kronikoa.

5.– Suspertzea:

5.1.– Bihotz-biriketako bizkortzea.

5.2.– Jaioberrien bizkortzea.

5.3.– Aurrebizkortze pediatrikoa.

5.4.– Bihotz eta hodietako kirurgiaren operazio ondoko zainketak.

5.5.– Neurokirurgiako operazio ondoko zainketak.

5.6.– Organoen transplante kirurgiaren operazio ondoko zainketak.

5.7.– Toraxeko kirurgiaren ondorengo operazio ondoko zainketak.

5.8.– Paziente politraumatizatuei ematen zaien arreta.

5.9.– Trastorno hemorragikoen diagnostikoa eta maneiua.

5.10.– Organo abdominaletako disfuntzioa duten pazienteei ematen zaien arreta.

5.11.– Shock egoeran dauden pazienteei ematen zaien arreta.

5.12.– Aireztapen mekanikoa.

5.13.– Inbaditzailea ez den aireztapena.

5.14.– Elikatze artifiziala.

5.15.– Infekzio perioperatorioak.

5.16.– Trastorno endokrino perioperatorioak.

5.17.– Anafilaxia.

5.18.– Hipertermia gaiztoa.

ESPEZIALITATEA: KARDIOLOGIA

Gai Zerrenda: Kardiología

1.– Anatomia eta fisiologia aplikatua. Erregulazio kardiobaskularrean inplikatutako sistemak.

2.– Historia Klinikoa eta azterketa fisikoa Kardiologian.

3.– Elektrokardiografia. Ariketa-testak eta balorazio elektrofisiologiko klinikoa.

4.– Irudi bidezko diagnostiko-sistema: toraxeko erradiologia, OTA, EMN, Ekokardiografia, Kardiologia Nuklearra.

5.– Kateterismo kardiakoa eta angiografia. Diagnostikoa eta terapeutika.

6.– Farmakoak Kardiologian. Farmakologia klinikoa. Farmakozinetika. Azalpenak eta droga kardiobaskularren dosifikazioa.

7.– Bihotz-gutxiegitasuna, ezaugarriak, zeinu klinikoak eta kudeaketa kliniko eta kirurgikoa.

8.– Sinkopea. Jatorri kardiakoko bat-bateko heriotza.

9.– Arritmiak. Klinikoa. Ebaluazioa eta diagnostikoa. Terapeutika.

10.– Zirkulazio-gutxiegitasun akutua: Shock kardiogenikoa.

11.– Arterioesklerosia. Gaixotasun koronarioaren patogenia. Gaixotasun koronarioaren arrisku-kontzeptua. Kausak, prebentzioa eta terapeutika.

12.– Sindrome koronario akutuak (SKA).

13.– Kardiopatia iskemiko kronikoa.

14.– Gaixotasun koronarioaren tratamendua.

15.– Gaixotasun balbular kardiakoa.

16.– Sukar erreumatikoa.

17.– Sortzetiko gaixotasun kardiakoa.

18.– Endokarditis infekziosoa.

19.– Miokardiopatiak.

20.– Perikardiopatiak.

21.– Bihotzeko tumoreak.

22.– Traumatismo kardiakoa.

23.– Hartutako aorta-gaixotasuna.

24.– Hipertentsio arteriala. Patofisiologia. Diagnostikoa. Tratamendua.

25.– Gaixotasun tronboenbolikoa.

26.– Hipertentsio pulmonarra. Bihotz pulmonarra.

27.– Anestesia eta kirurgia ez-kardiakoa kardiopatia duten pazienteetan.

28.– Beste organo eta sistemen prozesuek bihotzean eragiten dituzten ondorioak.

29.– Prebentzio sekundarioa. Gaixotasun kardiakoaren errehabilitazioa.

30.– Arteriopatia periferikoa.

31.– Patologia kardiobaskularra egoera berezietan: haurdunaldia, kirol-praktika, kirurgia ez-kardiakoa.

32.– Espezialitatearen beraren prozedura diagnostikoak eta terapeutikoak. Teoria eta praktika.

Gai Zerrenda: Kardiologia-Hemodinamika

1.– Hemodinamikako ekipamendua: X izpi tresneria: erradiodiagnostikoko irudia sortzeko oinarri fisikoak. Kardiologiarako eta erradiologia baskularrerako erradiologia-teknika espezifikoak. X izpien ondorio biologikoak. Erradiobabesa. Pazientearen monitorizazioa. Bizi-euskarriko ekipamenduak eta zirkulazio-asistentzia. Kontraste-baliabideak.

2.– Sarbide baskular arteriala eta benosoa: anatomia normala eta aldaera anatomikoak. Sarbide baskularreko teknikak. Itxiera perkutaneoko gailuak. Konplikazio baskularrak.

3.– Kateterismo kardiako diagnostiko eta terapeutikorako material suntsigarria: Kateterrak. Gidak. Arteria koronarioa eta hodiak dilatatzeko baloiak. Stent koronarioak eta baskularrak. Aterektomia-gailuak. Xurgatzeko gailuak. Diagnostiko inbasiboko sistemak. Babes distaleko sistemak. Erauzketa intrabaskularreko gailuak. Zuloak eta aurikulako belarritxoa ixteko gailuak. Balbula perkutaneoak. Endoprotesia. Miokardioko biopsia.

4.– Eskuin-ezkerreko bihotz-kateterismoa. Teknika. Gastu kardiakoa zehaztea. Presio-neurriak, erresistentzia-kalkuluak, gradienteak eta balbula-eremuak. Shunt intrakardiakoak. Angiografia kardiakoa. Bentrikuluaren funtzio-neurriak.

5.– Anatomia koronarioa. Teknika eta prozedura koronariografian. Proiekzio angiografikoak. Angiografia kuantitatiboa. Diagnostiko intrakoronarioa.

6.– Anomalia koronarioak: jatorriko anomaliak. Fistulak. Ektasia koronarioa. Zubi intramiokardikoak. Sortzetiko kardiopatiei elkartutako patroi koronarioak. Drainatze benoso kardiakoaren anomaliak.

7.– Interbentzionismo koronarioa: Indikazioak, teknikak eta emaitzak. Kateter gida aukeratzea eta gida koronarioak. Angioplastia baloiarekin eta baloi-mota ezberdinekin. Stent eta stent-motak. Aterektomia errotazionala, materiala eta teknikoa. Interbentzionismoa adarkatze-lesioetan. Tronbodun lesioen tratamendua. Angioplastia primarioa. Interbentzionismoa mentuetan. Buxadura kronikoa. Interbentzionismoa ezkerreko enbor komunean. Fistula koronarioak ixtea. Interbentzionismo koronario perkutaneoaren konplikazioak eta bere tratamendua.

8.– Kardiopatia iskemikoa eta bere agerraldiak. Tratamendu medikoa. Tratamendu kirurgikoa eta tratamendu perkutaneoa. Indikazioak. Pazienteak hautatzea.

9.– Hodietako kardiopatien profil klinikoa eta hemodinamikoa. Tratamendu kirurgiko eta perkutaneorako indikazioak. Kateterismo transeptala, materiala eta teknikoa. Balbuloplastia mitrala eta aortakoa. Bihotz-protesien inplante perkutaneoa. Balbula mitralaren konponketa perkutaneoa. Leak periprotesikoen itxiera.

10.– Miokardiopatien profil klinikoa eta hemodinamikoa. Miokardiopatia dilatatua. Miokardiopatia murriztailea. Miokardiopatia hipertrofikoa. Septalaren ablazioa. Terapia zelularra.

11.– Sortzetiko kardiopatien profil klinikoa eta hemodinamikoa. Anatomia. Angiografia. Kalkulu hemodinamikoak. Balbuloplastiak. Angioplastiak. Zirkuitu laburrak ixtea.

12.– Profil klinikoa eta hemodinamikoa perikardioaren patologian. Konstrikziozko perikarditisa. Buxadura kardiakoa.

13.– Profil klinikoa eta hemodinamikoa aortaren patologian. Aortaren sindrome akutua, diagnostikoa eta tratamendua. Aortaren patologia kronikoa. Aortaren hertsadura. Aortaren endoprotesia.

14.– Biriketako hipertentsioaren profil klinikoa eta hemodinamikoa. Hodi-zabaltzaileen erantzun-azterketak.

15.– Farmakologia kardiobaskularra. Hemostasia hemodinamikan. Antiagregatzaileak, antikoagulatzaileak, fibrinolitikoak. Kontraste-baliabideak. Giltzurrun-babesa. Antiarritmikoak. Betablokeatzaileak. Kaltziozko antagonistak. Sinpatikomimetikoak. Nitratoak. Sedazioa eta analgesia. Paziente kardiopatentzako beste farmako batzuk: ECA eta ARA II inhibitzaileak, diuretikoak, hipolipemiatzaileak, antidiabetikoak.

16.– Kateterismo kardiakoaren konplikazioak. Diagnostikoa eta tratamendua. Koronarioak: disekzioa, haustura, buxadura akutua, embolizazioa, Stent-galera. Baskularrak: disekzioa, perforazioa, haustura baskularra, enbolizazioa. Istripu zerebrobaskularra. Bihotz-buxadura. Arritmia-konplikazioak.

17.– Oinarrizko bizi-euskarriko teknikak eta bihotz eta biriketako bizkortze aurreratua. Intubazio orotrakeala. Desfibrilazioa. Farmakologia bizkorketan. Taupada-markagailua. Kontrapultsazioa eta zirkulazio-euskarriko beste teknika batzuk.

18.– Teknika laguntzailekideak hemodinamikan. Elektrokardiografia. Ekokardiografia transtorazikoa. Ekokardiografia transesofagikoa. Ekografia intrakoronarioa eta intrabaskularra. Bestelako irudi-teknikak kardiologian: OTA eta EMN.

Azterketa nagusi errandomizatuak eta erregistroak Kardiologia Interbentzionistan. Stent konbentzionalak eta farmakoaktiboak. IKP infartuan ST segmentuen gorapenarekin. Birbaskularizazio-estrategiak: IKP versus kirurgia. Estrategia goiztiarra versus kontserbadorea sindrome koronario akutuan. Tratamendu medikoa versus IKP. Terapia zelularra miokardioko infartu ostean. Tronbo-konplikazioen prebentzioa. IKP diabetikoetan. Protesi balbular perkutaneoak. Balbula mitralaren konponketa. Itxidura perkutaneoko gailuak.

ESPEZIALITATEA: AHO ETA AURPEGI-MASAILETAKO KIRURGIAKO MEDIKUA

1.– Semiologia eta propedeutika klinikoak. Alderdi orokorrak. Aurpegi-masailetako kirurgiaren historia klinikoa. Anamnesia. Ahoaren, aurpegiaren eta lepoaldearen miaketa. Aplikatutako laborategiko proba osagarriak. Aplikatutako zitologia eta histologia. Aplikatutako mikrobiologia.

2.– Irudi bidezko diagnostikoa aho-lepoalde-aurpegiko eremuan. Prozedurak. Indikazioak.

3.– Aho barrunbeko funtzioak. Hortz-oklusioari eta sistema estomatognatikoari buruzko kontzeptu orokorrak. Ahoa irekitzeko eta ixteko muskuluak. Barailaren mugimenduak. Artikulazio tenporo-mandibularreko fisiologia.

4.– Anestesia lokala eta erregionala aho eta aurpegi-masailen eremuan. Prozedurak. Konplikazioen maneiua.

5.– Anestesia orokorra Aurpegi-masailetako kirurgian.ASA sailkapena. Prozedurak. Anestesia sedazioarekin. Konplikazioen maneiua.

6.– Ekintza kirurgikoa. Asepsia eta antisepsia. Ebakiak. Hemostasia. Josturak.

7.– Operazio barneko eta operazio ondorengo konplikazio kirurgikoak. Konplikazioen maneiu mediko-kirurgikoa.

8.– Exodontzia. Prozedurak. Exodontzia arriskuko pazienteetan eta paziente berezietan.

9.– Hortz inklusioak. Maneiu kirurgikoa. Prozedurak. Indikazioak. Arriskua eta konplikazioak.

10.– Jatorria hortzetan duten infekzioak. Kontzeptua. Sailkapenak. Epidemiologia. Klinika. Diagnostikoa eta diagnostiko diferentziala. Tratamendu medikoa eta kirurgikoa. Konplikazioak.

11.– Masailezurretako infekzioa eta inflamazioa. Kontzeptua. Sailkapenak. Epidemiologia. Klinika. Diagnostikoa. Tratamendu medikoa eta kirurgikoa. Konplikazioak. Bisfosfonatoen bidezko masailezurretako osteorradionekrosia eta osteonekrosia. Kontzeptua. Epidemiologia. Koadro klinikoak. Diagnostikoa, prebentzioa eta tratamendua.

12.– Hortz-albeoloetako traumatismoa. Kontzeptua. Sailkapena. Epidemiologia. Klinika. Diagnostikoa. Tratamendu odontologikoa eta kirurgikoa. Konplikazioak.

13.– Masailezurretako kisteak. Kontzeptua. OMEren sailkapena. Epidemiologia. Klinika. Prozedura diagnostikoak. Tratamendu medikoa eta kirurgikoa. Konplikazioak.

14.– Aho eta aurpegiko traumatismoak zati bigunetan. Kontzeptua. Sailkapenak. Epidemiologia. Klinika. Prozedura diagnostikoak. Tratamendu medikoa eta kirurgikoa.

15.– Aurpegiko hezurretako traumatismoak. Kontzeptua. Sailkapenak. Epidemiologia. Klinika. Prozedura diagnostikoak. Tratamendu ortopedikoa eta kirurgikoa.

16.– Zati bigunetako eta aurpegiko hezurretako traumatismoen konplikazioak eta ondorioak. Berreraikitzea. Orbainak. Maneiu kirurgikoa.

17.– Hortz-berrinplanteak eta transplanteak. Kontzeptua. Sailkapena. Indikazioak eta kontraindikazioak. Erreabsortzio erradikularraren fisiopatologia. Prozedura kirurgikoak. Konplikazioak.

18.– Hortz-inplanteak. Kontzeptua. Sailkapena. Indikazioak eta kontraindikazioak. Hezurretako egoera eta sistema ezberdinak izanda egindako prozedura kirurgikoak. Konplikazioak.

19.– Protesi aurreko kirurgia. Berreraikuntzako prozedurak, ehun bigunetan aplikatuta. Berreraikuntzako prozedurak, ehun gogorretan aplikatuta. Konplikazioak.

20.– Ehunen birsorkuntza gidatua. Prozedurak. Ordezkatzeko eta birsortzeko biomaterialak. Aplikazioak. Teknikak.

21.– Lepoalde eta aurpegiko gongoiletako patologia. Sailkapena. Epidemiologia. Klinika. Prozedura diagnostikoak. Tratamendu medikoa eta kirurgikoa. Konplikazioak. Pronostikoa.

22.– Aho mukosako eta aurpegiko infekziozko patologia. Kontzeptua. Sailkapena. Epidemiologia. Klinika. Prozedura diagnostikoak. Tratamendu medikoa eta kirurgikoa.

23.– Lepoaldearen eta aurpegi-masailen eremuko trastorno mukokutaneoak. Kontzeptua. Sailkapena. Epidemiologia. Klinika. Prozedura diagnostikoak. Tratamendu medikoa eta kirurgikoa. Konplikazioak.

24.– Gaixotasun orokorrek ahoko mukosan eta aurpegian dituzten eraginak. Sailkapena. Fisiopatologia. Diagnostikoa eta diagnostiko diferentziala.

25.– Giltzadura tenporo-mandibularra. Fisiopatologia. Anomaliak eta deformazioak. ATMren trastornoak, Wilkesen arabera: diagnostikoa, tratamendu kirurgikoa eta kontserbatzailea. ATMren hausturak: sailkapena, epidemiologia, klinika, diagnostikoa, tratamendua eta konplikazioak. ATMko tumoreak.

26.– Politraumatizatuak: maneiua. Ondorengoen hausturak: goiko masailezurra, sudurraren eta hezur malarraren konplexua. Sailkapenak. Epidemiologia. Fisiopatologia. Klinika. Diagnostikoa. Tratamendua. Konplikazioak. Sekuelak, beraien maneiua. Urgentziazko tratamendua. Eragina burezurreko eta aurpegiko beste egitura batzuetan.

27.– Beheko masailezurreko hausturak: sailkapena, epidemiologia, fisiopatologia, klinika, diagnostikoa, tratamendua eta konplikazioak. Urgentziazko tratamendua.Eragina burezurreko eta aurpegiko beste egitura batzuetan.

28.– Patologia neurologikoa. Sailkapena. Epidemiologia. Patogenia. Klinika. Diagnostikoa. Min neurologikoaren diagnostiko diferentziala. Tratamendua. Konplikazioak.

29.– Aho-lepoalde-aurpegi multzoko zati bigunetako kisteak. Sailkapena. Epidemiologia. Klinika. Diagnostikoa. Tratamendua. Konplikazioak.

30.– Tumore odontogeniko onberak eta gaiztoak masailezurretan. OMEren sailkapena. Epidemiologia, klinika, diagnostikoa, tratamendua eta konplikazioak. Pronostikoa.

31.– Tumore ez-odontogeniko onberak eta gaiztoak masailezurretan. OMEren sailkapena. Epidemiologia, klinikoa, diagnostikoa, tratamendua eta konplikazioak. Pronostikoa.

32.– Sudurraren eremuko tumore onberak eta gaiztoak. OMEren sailkapena. Epidemiologia, klinika, diagnostikoa, tratamendua eta konplikazioak. Pronostikoa.

33.– Sinu nasal eta paranasaletako tumore onberak eta gaiztoak. OMEren sailkapena. Epidemiologia, klinika, diagnostikoa, tratamendua eta konplikazioak. Pronostikoa.

34.– Goiko bide aerodigestiboko tumoreak. OMEren sailkapena. Epidemiologia, klinika, diagnostikoa, tratamendua eta konplikazioak. Pronostikoa.

35.– Garezurraren oinaldeko tumoreak. OMEren sailkapena. Epidemiologia, klinika, diagnostikoa, tratamendua eta konplikazioak. Pronostikoa.

36.– Masailezurretako afekzio pseudotumoralak. OMEren sailkapena. Epidemiologia, klinika, diagnostikoa, tratamendua eta konplikazioak. Pronostikoa.

37.– Aho-barrunbeko eta aurpegiko ehun bigunetako tumore onberak. Kontzeptua. OMEren sailkapena. Epidemiologia, klinika, diagnostikoa, tratamendua eta konplikazioak. Pronostikoa.

38.– Listu-guruinetako patologia inflamatorioa, immunologikoa eta infekziosoa. Kontzeptua. Listu-guruin motak. OMEren sailkapena. Epidemiologia, klinika, diagnostikoa, tratamendua eta konplikazioak. Pronostikoa.

39.– Listu guruinetako patologia tumoral onbera eta gaiztoa. OMEren sailkapena. Epidemiologia, klinika, diagnostikoa, tratamendua eta konplikazioak. Pronostikoa.

40.– Aho mukosako lesioak, minbizi bilaka daitezkeenak. Kontzeptua. OMEren sailkapena. Epidemiologia, klinika, diagnostikoa, tratamendua eta konplikazioak. Pronostikoa.

41.– Aho-barrunbeko tumore gaiztoak. OMEren sailkapena. Epidemiologia, klinika, diagnostikoa, tratamendua eta konplikazioak. Pronostikoa. Markatzaile tumoralen ikerketa traslazionalaren egungo egoera ezkata-zeluladun ahoko kartzinoman.

42.– Haur eta helduen buruko eta lepoko tumore baskularrak eta nerbiosoak. OMEren sailkapena. Epidemiologia, klinika, diagnostikoa, tratamendua eta konplikazioak. Pronostikoa.

43.– Kirurgia berreraikitzailea: zintzilikarioak eta injertoak aurpegi-masailetako kirurgian. Sailkapena. Prozedura eta teknika motak. Indikazioak. Kontraindikazioak. Konplikazioak. Kirurgia robotikoa: abantailak eta desabantailak. Indikazioak. Emaitzak. Zelula-hazkuntzak: kontzeptua, metodologia, indikazioak, mugak eta emaitzak eta konplikazioak.

44.– Lepoko gongoil-hustuketak. Sailkapena. Prozedura eta teknika motak. Indikazioak. Kontraindikazioak. Konplikazioak. Gongoil zelataria.

45.– Erradioterapia eta kimioterapia. Sailkapena. Aplikazioa buruko eta lepoko onkologian. Tratamenduak. Indikazioak eta kontraindikazioak. Emaitzak eta konplikazioak.

46.– Aurpegiko kirurgia estetikoa. Prozedura eta tekniken sailkapena. Indikazioak. Kontraindikazioak. Konplikazioak. Sekuelak. Aurpegi-transplantea. Indikazioak. Teknikak. Aurpegia gaztetzea. Aplikazioak. Teknikak. Emaitzak eta konplikazioak.

47.– Ezpainetako eta ahosabaiko fisura. Kontzeptua. OMEren sailkapena. Fisiopatologia. Klinika. Diagnostikoa. Teknika kirurgikoak. Konplikazioak. Emaitzak.

48.– Aho eta aurpegiko protesi kirurgikoak, epitesia. Berreraikuntzarako aplikazioa aurpegi-masailetako kirurgian.

49.– Kirurgia ortognatikoko prozedurak: Kontzeptua, sailkapena, diagnostikoa eta tratamendu plana, etapak eta aplikatu beharreko tekniken plangintza, konplikazioak. Hezurren distrazioko prozedurak: Kontzeptua, indikazioak, kontraindikazioak, aplikatutako teknikak, emaitzak eta konplikazioak. CAD-CAM teknologia kirurgia ortognatikoko prozedurari aplikatuta.

50.– Eraginkortasuna eta aldakortasuna medikuntzako jardunean. Ebidentzian oinarritutako medikuntza: kontzeptua eta aplikazioak aurpegi-masailetako kirurgian. Protokolizazio-tresnak eta praktika klinikoko gidak aurpegi-masailetako kirurgian aplikatzea. Aurpegi-masailetako kirurgian aplikatutako kalitate-estandarrak. Etengabeko Hobekuntzako Zikloa: kontzeptua eta aplikazioa aurpegi-masailetako kirurgian.

ESPEZIALITATEA: KIRURGIA PEDIATRIKOA

1.– Nutrizio-euskarria; behar hidroelektrolitikoak, ahoko elikadura eta parenterala.

2.– Kiste eta fistula zerbikalak. Tiroide eta paratiroide guruinen patologia.

3.– Anomalia baskularrak: Hemangiomak, malformazio baskularrak eta linfatikoak.

4.– Kirurgia fetala.

5.– Abdomeneko larrialdi kirurgikoak jaioberri-aldian.

6.– Hestegorriko atresia. Laringe-trakeako arraildura.

7.– Toraxeko larrialdi kirurgikoak jaioberri-aldian.

8.– Esofagoskopia. Hestegorriko estenosi kaustikoak. Akalasia.

9.– Errefluxu gastroesofagikoagatiko gaixotasuna. Ultzera (ulcus) gastroduodenala.

10.– Abdomen-paretako sortzetiko anomaliak.

11.– Zilborreko patologia.

12.– Pankreako patologia kirurgikoa. Pankreatitis, tumoreak eta kisteak.

13.– Heste-malformazioak: atresiak, estenosia, bikoizketak eta kisteak.

14.– Hesteetako hantura-gaixotasuna. Polipoak eta hesteetako poliposia.

15.– Heste laburreko sindromea. Hesteetako transplantea.

16.– Digestio-odoljarioak.

17.– Haur politraumatizatua: traumatismo zerbikalak, torazikoak, abdominalak eta urologikoak.

18.– Gorputz arrotzak airebidean eta digestio-bidean.

19.– Behazun-bideetako sortzetiko anomalien diagnostikoa eta tratamendua. Atresia biliarra eta koledoko-kisteak.

20.– Behazunbideko hartutako patologia.

21.– Portako Hipertentsioa. Gibeleko transplantea.

22.– Bareko patologia: kiste esplenikoak. Esplenektomiarako azalpenak.

23.– Uzki-ondesteko malformazioak.

24.– Uzki-ondesteko hartutako patologia.

25.– Hirschsprung-en gaixotasuna.

26.– Jatorri neurogenikoko tumoreak eta Wilms-en tumorea.

27.– Errabdomiosarkoma eta ehun bigunetako beste sarkoma batzuk.

28.– Teratomak eta zelula germinaletako tumoreak.

29.– Gibeleko tumoreak.

30.– Linfomak.

31.– Obulutegi, testikulu eta suprarrenaletako tumoreak.

32.– Intersexuak.

33.– Abdomen akutua haurtzaroan: apendizitisa, heste-inbaginazioa, obulutegi-tortsioa.

34.– Piloroaren estenosi hipertrofikoa.

35.– Heste-inbaginazioa.

36.– Iztai-bideko patologia: herniak, hidrozele, kriptorkidia.

37.– Eskroto akutua.

38.– Torax-paretako sortzetiko anomaliak.

39.– Diafragmako sortzetiko hernia eta diafragmaren ebentrazioa.

40.– Mediastinoko eta biriketako sortzetiko malformazioak.

41.– Biriketako, pleurako eta mediastinoko hartutako infekzioak eta gaixotasunak.

42.– Aurpegiko sortzetiko malformazioak. Erbi-ezpaina eta fisura palatinoa.

43.– Giltzurruneko eta gernubideetako buxadurazko eta sortzetiko anomalien diagnostikoa eta tratamendua.

44.– Gernu-litiasia. Giltzurrunetako transplantea.

45.– Besikula-ureter errefluxuaren tratamendua.

46.– Maskuriaren estrofia.

47.– Hipospadiak.

ESPEZIALITATEA: ENDOKRINOLOGIA ETA NUTRIZIOKO MEDIKUA

1.– Hormona-ekintzako mekanismoak.

2.– Trastorno hipotalamikoen fisiopatologia eta terapeutika.

3.– Adenohipofisi-gaixotasunaren fisiopatologia eta terapeutika.

